

*Edukiz eta
publizitatez
osaturako
gehigarria.*

ATE GUZTIAK ZABALIK

**Hezkuntza
eskaintza
Aiaraldean**



Hezkuntza Aiaraldean

Zabalik dago Batxilergoko aurrematrikulazio epea Aiaraldeko ikastetxe publiko zein itunpekoetan

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak datorren martxoaren 31n zabalduko du Batxilergoan matrikulatzeko epea, apirilaren 11ra arte zabalik egongo dena. Ikastetxe publiko zein pribatuetan matrikulazio epea berdina da. Aurreko urteetan bezala bibide egongo dira; aurrez aurreko matrikulazioa edo Internet bidezkoa. Bigarrenetik jotzen duten ikasleek Hezkuntza Sailaren web orrian aurkituko dute hori egiteko aukera. Behin matrikulazio epea amaituta, maiatzaren 5ean aur-

keztuko dira behin-behineko zerrendak, eta maiatzaren 12a baino lehenago aurkeztu ahalko dira erreklamazioak, egun hori barne. Behin betiko zerrendak maiatzaren 19an egingo dituzte publiko. Behin hori eginda, ohiko matrikula-aldia abiatuko du Hezkuntza Sailak. Aurtengoan ekainaren 16tik uztailaren 30era luzatuko da, biak barne.

Lanbide Heziketako zentroetan matrikulatzeko epea maiatzean abiatuko dute.

Ohikoan bezala, hezkuntza eskaintza zabala aurkituko dute ikasle eta familiek Aiaraldean, zentro publiko zein itunpekoetan.





La Milagrosa Ikastetxea

MATRIKULA ZAITEZ!

ZURE ZAIN GAUDE!

946720701 

info@lamilagrosalaudio.eus



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

KRISTAU
ESKOLA

Jaioberriak - 16 urte arte



Amaurren esperimentazioaren magia: sentitu, esploratu, ikasi

Multigela itxita dago eta barruan sekretu bat dago gordeta, udaberria hasiberria da eta barruan tailer bat dugu zain, non material asko aurkituko ditugun, sentitzeko, ikasteko, esperimendatzeko... Egoera hori hainbat aldiz gertatzen da ikasturtean zehar Amaurren. Neurozientzian oinarritutako tailerrek gure ikasleek garapen integralerako onurak ekartzen dituzte.

Haurraren garunean bizitzako lehen urteetan

Haurtzaroa gizakiaren garapenean funtsezko etapa bat da. Garuna azkar hazten da, eta esperientzia aberats eta askotarikoek haren egitura moldatzen dute. Jakin badakigu esperientzia ezberdinek garuna eraikitzen dutela bizitzan zehar. Haurrek esperimendazioaren bidez mundua esploratzen dute, eta horrek haien gaitasun kognitiboak, motorrak eta sozioemozionalak garatzen laguntzen du. Neurozientziak argi

erakutsi digu: "0, 1 eta 2 urteko haurrentzat esperimendazioa sustatzea funtsezkoa da garun osasuntsua lortzeko". Esperientzia sensorialen bitartez, garunean konexio berriak sortzen dira, eta horrek etorkizuneko ikaskuntzarako oinarri sendoak ezartzen ditu. Hori guztia kontuan hartuta, Amaurren bi esperimendazio-espazio handi eskainiz lan egiten da, alde batetik tailerrak eta bestetik atelier-gela.

Zer da aAtelier-gela?

Atelier-gelak prozesu berezia duen espazioa da. Gai desberdinen inguruan antolatzen ditugu saioak. Haurrek sartu aurretik, ez dakite zer aurkituko duten barruan. Horrek sentimendu ezberdinak sortzen ditu. Gela honetako esperientzia bost zentzumenak lantzen dituen ariketa da.

Eta nola funtzionatzen du?

Lehenik eta behin, saioaren arauak azaltzen ditugu, baina

ez dugu aurreratzen barruan zer dagoen. Andereñoak behatzaile lana egiten du, eta haurrek gela barruko elementu guztiak dastatzeko, ukitzeko eta sentitzeko aukera izaten dute. Saioaren amaieran, hausnarketarako momentua iristen da: haurrek elkarri kontatzen diote zer ikusi, sentitu eta esperimendatu duten. Momentu honek haien hizkuntza eta emozioen adierazpena lantzen laguntzen du.

Zein onura dakartza esperimendazioak?

Esperimendazioa haurren garapenerako tresna indartsua da. Amaurren badakigu esplorazio sensoriala eta objektuen manipulazioa ezinbestekoak direla umearen garapen integralerako, hau da, haien burmuin-konexioak ezartzen laguntzen du eta arazoak konpontzeko eta arazoari aurre egiteko gaitasuna hobetzen du. Emozioen kudeaketa lantzen hasten dira era inkontzientean.



Tailer horiean, mugimendua ere garrantzitsua izango da, ezta?

Noski! Mugimendua 0 eta 3 urte bitarteko haurren behar naturala izateaz gain, funtsezko zutabea ere bada haien garuna garatzeko, hau da, funtsezko konexio-neuronalek indartzen dituelako eta trebetasun kognitibo, motor eta emozionalerako oinarriak ezartzen dituelako.

Eta sozializazioan ere laguntzen al du?

Bai! Haurrek jarduera berriak probatzean, frustrazioa, pazientzia eta iraunkortasuna kudeatzen ikasten dute. Gainera, beste haur edo helduekin beren aurkikuntzak partekatzeak komunikazioa eta lankidetzaren indartzen du. Autonomia eta autoestimua ere sendotzen dituzte. Amaurren, haur bakoitzari bere erritmoan esploratzen eta mundua deskubritzen uztearen garrantzia azpimarratzen dugu, eta horrela, haien hazkunde osasuntsu eta zoriontsua bermatzen dugu.

HEZKUNTZAREN BIDAIA GUREKIN HASI NAHI?

ORDUTEGI
ETA EGUTEGI
ZABALAK
JAI EGUNETAN
BAKARRIK ITXITA

MATRIKULA
ZABALIK
URTE OSOAN ZEHAR

ZATOZ GU
EZAGUTZERA

AMAURRE
Txiki

KRISTAU ESKOLA

www.amaurre.eus
info@amaurre.eus
Tfno. 945 393 544



AMAURRE IKASTETXEA
Dionisio Aldama, 16
01470 Amurrio
Araba

Laudio BHI

“Uste dut betidanik izan dudala filosofiarekiko jakin-min handia, baina duela bi urtera arte inoiz ez dut aukera erreal bezala kontenplatu”



AIZPEA AZUMENDI BALADO (LAUDIO, 2007) LAUDIO BHIKO BATXILERGOKO 2. MAILAKO IKASLEA DA. BI URTEZ JARRAIAN PARTE HARTU DU FILOSOFIA OLINPIADAN ETA EMAITZA BIKAINAK LORTU DITU BERTAN. JAKIN-MINAK BULTZATUTA FILOSOFIA IKASKETAK EGIN NAHI DITU INSTITUTUKO ETAPA AMAITUTAKOAN.

Zein mailatan zaude eta zer ikasten ari zara?

Batxilergoko bigarren mailan nago, Giza eta Gizarte Zientzien modalitatean nago, baina matematika irakasgaiarekin. DBH 4. mailan zientzien modalitatea lehenetsi nuen, baina ez nintzen ondo moldatu. Irakasle batek animatu ninduen, oso ondo moldatuko nintzela esan zidan. Horrela erabaki nuen modalitatea.

Filosofia Olinpiadan parte hartu duzu azken bi ikasturteetan, emaitza onekin.

Filosofia irakasleak bultzatuta parte hartu nuen bertan. Bi modalitate desberdinetan aritu nintzen, “argazkia” eta “disertazioa”, eta biak irabazi nituen. Aurten ere bi modalitate horietan ahalegindu naiz. Lanketa gehiena klasean egiten dugu, gerora disertazioa nire kabuz idatzi dudan arren. Filosofia olinpiada irabazi izanak Espainiako Estatuko finalera joateko aukera eskaini dit. Iaz Bilbon ospatu zen. Oso ondo pasatu nuen eta oso jende berezia ezagutu nuen bertan. Institutuko hiru ikaskide joan ginen, egundoko esperientzia izan zen.

Aurten ere parte hartuko duzu estatu mailako finalean.

Aurtengoa Mallorcan izango da, asteburu honetan bertan [martxoak 28, 29, 30]. Disertazio bat egin beharko dut, eta asteburua gainerako finalistekin igaro.

Zein gai landu dituzue Filosofia Olinpiadan?

Aurtengo gaia zaintza izan da, iazkoa aisialdia. Aisia ezzen nire intereseko gai bat, baina klasean nahikotxo landu genuen. Aurten, ordea, oso tarte gutxi izan dugu gaia klasean lantzeko unibertsitateko sarbide frogak prestatzeak lehentasuna du eta. Niretzat, ordea, oso gai interesgarria izan da aurtengoa. Azkenaldian pil-pilean dagoen gaia da zaintzen inguruko eztabaida, asko irakurri dut horren inguruan eta asko disfrutatuta dut disertazioa prestatzen.

Filosofia Olinpiada bezalako ekimenetan parte hartzeak nola uste duzu elikatzen duela zuren institutuko ikasketa esperientzia?

Ikasle nahikotxo gara Batxilergoko bigarren mailan zein lehenengo mailan Filosofia Olinpiadan parte hartu dugunak, emaitza onekin gainera. Oso aberasgarria dela uste dut. Institutuan interes bereziak dituen jende berezia badagoela erakusten du horrek, eta hori sustatzeari oso positiboa dela deritzot.

Batxilergoko bigarren maila ikasketei loturiko erabakiak hartzeko unea izaten da. Zuk nola bizi izan duzu?

Oso luzea izan da. Aste gutxi falta zaizkigu bukatzeko baina oso luzea izan da. Azterke-

tak bata bestearen atzetik egiten ditugu. Oso ikasturte intentsua izan da honakoa. Nik nahiko argi daukat etorkizunean zer egin nahi dudana, iaztik; filosofia ikastea da nire lehenengo aukera.

Zerk bultzatu zaitu hori aukeratzera?

Uste dut betidanik izan dudala filosofiarekiko jakin-min handia, baina duela bi urtera arte inoiz ez dut aukera erreal bezala kontenplatu. Akaso, Filosofia ikasketek, antza, duten lan-irteera urriengatik. Institutuko irakasle batekin luze hitz egin nuen gaiaren inguruan, eta begiak zabaldu zizkidan nolabait.

Uste duzu Filosofia Olinpiadan parte hartu izanak eragina izan duela erabakian?

Imajinatzen dut baietz. Estatu mailako finalean filosofiaren alorrean hain animatuta dagoen jendea ezagutu izanak animatu egin nau, zalantzarik gabe.

Nola uste duzu gogoratuko dituzula institutu garaiak?

Ondo ziur. Azken finean gauza positiboak beti gailentzen dira.

Eta nola aurreikusten duzu etapa berria?

Gogotsu nago. Badut gogoia airez aldatzeko. Donostiara joango naiz Filosofia ikastera, eta horrek leku eta jende berria ezagutzera eramango nau.

LAUDIO
BHI
.eus

2025-2026 BATXILERGOKO AURREMATRIKULA

Martxoaren 31tik apirilaren 11ra (ONLINE EDO IKASTETXEAN)



BATXILERGOAK

- > Zientzia eta Teknologia
- > Giza eta gizarte zientziak
- > Arte plastikoak

Ate irekiak
APIRILAK 3,
17:30ean

Helmuga
euskarri
ibilbidea
helburu!



Motxilen pisua arintzen ari ginelakoan

AMAIA DIEGO ALBIZUA

Ematen du gure artean digitalizazioaren kontuarekin bizitzako hainbat arlo hobetu eta erraztuko dituen baliabideak irabazi ditugula, eta aurrerapen handia dela mundu digitalarena; baina kontrara, atzera pauso itzela izaten ari da gizartearen osasunerako.

Digitalizazioa orain dela urte dexente agertu zen gure bizitzetan, eta etengabeko berriztapenekin, halaberrez, gaur egun esku artean ditugun tresnak izaten jarraitzen dute. Hezkuntzan ere ez dago digitalizazioaren mamutik salbuetsita. Izan ere, ordenagailu edo Chromebookak ezinbesteko tresna bezala sartu genituen eskola barrura. Garai hori denok gogoratzen dugun pandemia garaia izan zen, eta telelanaren izenean, konponbide inprobisatu baten moduan, denok bat-batean dispositibo elektronikoak eta Internetera sarbidea behar genituen etxean. Ikasle zein irakasle orok.

Gauzak horrela, eta bost urte geroago, agian garai horretan konponbide inprobisatu izan zen horren hausnarketa ere egin beharko genuke. Izan ere, hausnarketa handirik gabe, gure eguneroko eskola jardunean, liburu fisikoak lizentzia digitalengatik ordeztu

ditugu, gure gazteen motxilen pisua arintzen ari garenaren sinesmen faltsuarekin.

Irakasleoi formakuntza digitala eskaintzen zaigu erreminta digital berrietan eguneratuta egoteko. Curridigi digitalizazio formakuntzan, alegia, edozein hizkuntza akreditazio bezala, gu ere B2 mailadun ikasle bilakatu gaitu nagusiak. Hezkuntza Sailak makinek guregatik egin dezaketenguztia ikasi dezagun nahi du.

Hezkuntza Sailak hartu duenaren kontrako norabidean, gaur egun edozein adituk esango digu pantailen erabilera ez dela ona, gure neska-mutilek ez dituztela guk eurei emandako tresna horiek erabili behar, onuragarria dela eskuz eskutitzak idatzi eta matematika kontuak paperean egitea; nahiz eta guk jada irakatsi diegun makinek hori egiten dakitela. Badakigu nerabeek ere adimen artifizialarekin jolasten dutela, sare sozialekiko mendekotasun handia pairatzen ari direla eta ezin direla bizi kontrolpean dituen gailu adimendun hori gabe.

Beraz, ikusten ari gara nerabeen arazo handienak tresna digitalen kontsumotik datozela, guk emandako makinaren mendekotasunetik. Normaltasun baten

kontra egitea ez da lan erraza. Pentsatzen dut digitalizazioa alde batera utzi eta nerabeen osasun emozionala zaindu beharko genukeela, alde aurretik txarto egin den horri konponbidea bilatuz. Irakasleon burokrazia lana arindu, ikasleentzako premiazkoak diren beharrak epe laburrean konponduz. Gure eguneroko tratuan ikasleekin baliagarriak zaizkigun prestakuntzak behar dira, gaur egungo arazo sozialei erantzuten dietenak. Bermatzea ikasleek behar bezalako laguntza jasotzen dutela adituak diren profesionalengandik, nerabeak laguntzean adituak diren profesionaletan inbertituta, adibidez.

Horregatik pentsatzen dut digitalizazioa eskolan sartzea akats handia izan dela, eta agian horrek gure nerabeak moduren batean gaixotu dituela. Grebalaria naiz eta grebetan parte hartuko dut horregatik guzti-gatik, baita ere gustatzen ez zaizkidan beste gauza askorengatik ere. Hezkuntza Sailari esan behar zaio eskola publikoak aldaketa bat behar duela benetako kalitatezko hezkuntza bermatzeko, ikasleak erdigunean eta abiapuntuan jarrita, gure atzetik datozen aiaraldearrak erdigunean jarrita.

Aintzinako Andra Maria Ikastetxea

HAURTZAINDEGIA



Urduña

BATXILERGOA
B+ eredu
(B2 ziurtagiria)

INFORMATIKAKO GOI
MAILAKO ZIKLOA

Plataforma anitzeko
aplikazioen garapena

INFORMAZIOA ETA BISITAK:
secretaria@colegiojosefinos.com
945 384 830



Iritzia



Lanbide Heziketa Aiaraldean, etorkizunerako gakoa

GORKA AGUIRRE ASTARLOA

TECOELeko bazkide langilea naizen aldetik, gure eskualdeko enpresa-sarearen errealitatea gertutik bizitzeko aukera dut. Eskualdeak gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen erronka teknologiko, produktibo eta sozialei aurre egiteko talentu kualifikatuaren beharra da gehien aztertzen ari garen eta, zalantzarik gabe, gehien kezkatu behar gaituen gaitako bat. Tes-tuinguru horretan, Lanbide Heziketak funtsezko zeregina estrategikoa du Aiaraldearentzat.

Zorionez, kalitatezko prestakuntza-zentroak ditugu, hala nola Audioalde Lanbide Heziketa. Gure gazteak goi-mailako eskakizunetan trebatzeaz gain, berrikuntzarako urrats erabakigarriak ematen ari dira bertan. Horren adibide ona izan zen joan den martxoaren 13an egindako jardunaldia, non inguruko enpresek aukera izan genuen bertatik bertara ezagutzeko Audioalde zentroak TKnika sarera egindako inorporazioa. Ez da urrats txikia gero: LHko zentroen eta

enpresen arteko lankidetzaren dinamika batean sartzea eskatzen du, berrikuntza-proiektu errealek sustatzeko, prozesuak hobetzeko eta etengabe eraldatzen ari den merkatura hobeto egokitzeko.

Enpresaren ikuspegitik, aukera handia da hori. Audioalde LH bezalako zentroekin automatizazio, digitalizazio, efizientzia energetiko edo teknologia berrien proiektuetan lan egiteko aukera probestu beharreko aukera estrategikoa da. Gainera, ateak irekitzen dizkie etorkizuneko langileei gure enpresen errealitate-tik hurbilago dauden inguruneetan formatzeko, eta horrek, enpresan sartzea ez ezik, garapen profesionala erraztu egiten die ere.

Baina dena ez dira indarguneak. Erronkak ere badi-tugu. Familien eta gazteen artean Lanbide Heziketari prestigio handiagoa emateko beharra da erronka nagusietako bat. Gaur egun ere, LH bigarren aukera bat delako pertzepzio okerra dago oraindik. Errealitatea

oso bestelakoa da: kalitatezko irtenbide profesionalak, enplegarritasun handia eta hazteko aukera errealek eskaintzen ditu eta. Beste erronketako bat enpresen eta zentroen arteko lankidetzaren etengabea eta eraginkorra da, eta horrek bi aldean borondatea, denbora eta baliabideak eskatzen ditu.

Lanean Aiaraldeko federazioko kide garen aldetik, hurbilketa hori bultzatzeko konpromisoa dugu. Uste osoa dugu gure eskualdearen etorkizunak prestakuntzaren eta enpresaren arteko benetako aliantza behar duela, eta aliantza hori tokian tokitik eraiki behar dela, ikuspegi orokorrarekin, baina oinak Aiaraldeko errealitatean ondo finkatuta.

Audioalde LH TKnikan sartzea albiste bikaina da. Orain denoi dagokigu —enpresei, ikastetxei, erakundei eta gizarteari oro har— norabide berean arraun egitea, Lanbide Heziketa izan dadin Aiaraldeak behar duen eraldaketa eta garapenerako benetako motorra.

Zaraobe BHI



“60 ikasle batu dira aurten Erasmus+ programara”

IÑIGO LOPEZ DE SANTIAGO ZARAUBE INSTITUTUKO ZUZENDARIA IKASTETXEAN ABIAN DITUZTEN INTERNALIZAZIO PROGRAMEN INGURUAN MINTZATU DA.

Internalizazioa ardatz garrantzitsua duzue Institutuan.

Aspalditik Zaraobe Institutuan darabilgun strategiaren puntu garrantzitsua da internazionalizazioa. Horren barruan, Erasmus programak dira internalizazioaren erakusle nagusiak, baina badi-tugu beste hainbat dinamika eta programa gehiago ere; Lanbide Heziketako ziklo elenaiztunak, esaterako.

Noiz ekin zenioten horrelako programak garatzeari?

2000. urtean hasi ginen Erasmus programa inplementatzen. Orduan goi-mailako ikasle gutxi batzuk bidaltzen genituen atzerri-ara, gaur egun programak hartu duen dimentsioa oso bestelakoa da. Aurtengo ikasturtean lehenengo aldiz ikastetxeko maila guztietara hedatu dugu Eras-

mus+ programa: DBHra, Batxilergora, Oinarrizko Lanbide Heziketara eta Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketa zikloetara. Urte-tetik urtera gero eta ikasle gehiago bidaltzen ari gara herritarra.

Zenbat ikaslek parte hartzen dute horrelako programetan?

Aurten orotara 60 ikasle eta 16 irakasle batu dira Erasmus+ programara. Guztira hamabi fluxu desberdinetan zazpi herrialde desberdin bisitatu dituzte. Datorren ikasturtean kopuru hori handitzea da gure asmoa.

DBH eta Batxilergoan Polonia, Frantzia eta Alemaniako ikastetxeekin izan ditugu elkartrukeak. Aipatutako herrialdeetara joateaz gain, bertako ikasleak ere jaso ditugu ikastetxean.

Lanbide Heziketaren kasuan hiru hilabeteko egonaldiak egi-

ten dituzte atzerriko enpresetan praktikak garatzeko. Italia, Finlandia, Herbehereak eta Portugal izan dira aurtengo helmugak...

Lanbide Heziketako 16 ikasle eta 8 irakasle. Mugikortasun programa bakoitzak helburu zehatz bat dauka. Esaterako, Alemaniako ikastetxeekin egindako elkar-trukeetan Guda Zibila eta memoria historikoa landu ditugu.

Zer ekarpen egiten diote horrelako programek ikastetxeari?

Oso aberasgarria da beti beste leku batzuetan lana nola egiten den ikustea eta hortik ikastea. Horrek motibazioa sortzen du ez bakarrik irakasleengan, baita ikasleengan ere. Guk Institutuan bertan pilatutako esperientzia eta motibazio hori guztia jasotzen dugu bueltan.

Hezkuntza formaletik haratago

Batxilergoan, ikasleen aurreko 16 urtetako ibilbideari jarraituz, hezkuntza integrala garatzen segitzen dugu. Ikasleari arlo akademikoa eta pertsonala lantzeko aukera eskaintzen zaio, giza eta adimen heldutasuna lortzeko eta bizitza aktiboan arrakastaz zein erantzukizunez jokatzeko.

Ikasleek gero eta autonomia handiago garatzea da Laudio Ikastolaren asmoa. Horretarako ikaslea subjektu aktiboa bihurtzen dugu, ikaslea bera izanik bere ikaskuntzaren protagonista.

Proiektu osagarriak

Irakaskuntza horretan, hezkuntza formala hezkuntza ez formalarekin batuta, proiektu osagarriak eskaintzen dira:

· Irteerak, barnetegiak, bidaia kooperatiboak edota topaketak

Batxilergoan hasi aurretik, gura etortzeko asmoa duten ikasle horiekin topaketa bat egiten da, gure Ikastola eta euren gelakide izango diren horiek ezagutzeko. Behin Ikastola hautatuta, Batxilergoko 1. mailaren hasieran, ikasleen arteko harremanetan sakontzeko barnetegia egiten da.

Ikasturtean zehar ere badira bestelako txango batzuk ere; antzerkia, museoa, orientazioari begirako irteerak, etab.

Batxilergoko 2. mailan Ika-Sahara elkartean proiektuan parte hartzeko aukera ematen zaie, saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidaia kooperatibo bat burutuz.

· Aisialdian aritzeko hezitzaile ikastaroa

Laudio Ikastolak, Ikastolen Elkarteko Aisiola Aisialdi Eskolarekin elkarlanean, aisialdiko hezitzaile izateko ikastaroa eskaintzen du. Ikastolarentzat gakoa da hezitzaile prestatuena izatea, gure haur eta nerabeentzat, Ikastolaren balioekin bat egiten duen aisialdia eskaini ahal izateko. Ikasle horiek Ikastolako eskolaz kanpoko ekintzetan praktikak egiten eta lanean aritzeko aukera dute; udalekuak, eski egonaldia, udaberrilekuak, irteerak, ikasturtean zehar eskaintzen diren jarduerak...

Modu horretan ikastaroko trebakuntza eta ezagutzak praktikan jar ditzakete eta gainera,

Ikastolarekin lotura izaten jarraitzeko aukera ere dute. Hori bakarrik ez, hezkuntza ez formala Ikastolak duen irteera profila indartzen laguntzen du; aktiboa, kritikoa, solidarioa, parte hartzailea, autonomia, eraikitzailea, sortzailea...

Galde diezaiegun ikasleei!



AISIALDIKO HEZITZAILE IKASTAROA BUKATUTA, IKASTOLAN LANEAN ARI DIRENAK (IKASLE OHIAK)

IZADI RESPALDIZA BASTERRA (Laudio) eta **IRAIA ASTORIKA GOÑI** (Zeberio), gaur egun Ikastolan dantza modernoa eta patinaje eskolako hezitzaileak zarete.

Izadi, zer eman zizun ikastaroak?

Monitoretza ikastaroan hainbat gaitasun garatu nituen, hala nola umeekin eta nerabeekin argi eta zehatz komunikatzen, eta aldi berean, bakoitzaren nahiak eta beharrak entzuten eta ulertzen.

Horretaz aparte, talde bat eramateko behar diren hainbat gaitasun garatu eta eskuratu nituen; taldearen dinamika ulertzea eta horren arabera ekintzak planifikatzea eta talde barruko gatazkak zuzentzea eta konpontzea, beste askoren artean.

Ikastaroari esker eta bertan ikasi nituen gauzei esker, gaur egun eskolaz kanpoko ekintzetan eta aisialdian nire ezagutzak erabil ditzaket egoera desberdinak hobeto eramateko.

Iraia, nola izan da Ikastolara hezitzaile gisa itzultzea?

Orokorrean, oso esperientzia polita izan da, umeekin hezitzaile bezala lan egiterakoan mo-

mentu desberdinei zelan aurre egin eta ze jarrera mantendu irakatsi dit, momentu hobeago zein txarragoak eduki baititugu. Gainera, Ikastolan lan egiteak batxiko oroitzen asko ekarri dizkit, gogorra izan arren, klasean oso ondo pasatzen nuen eta klasekide zein irakasleekin oso gustura egon nintzen.

Hau ikusita, bidaia honek gure egunerokoan ditugun gauzei garrantzi gehiago ematea eta "gauza gutxierekin" pozik mantendu gaitzkeela irakatsi digu.



AISIALDIKO HEZITZAILE IKASTAROA BUKATZEN ARI DIRENAK (BATXILERGOKO 2. MAILAN)

MARKEL GARMENDIA PARRA (Laudio) eta **AMAIUR PIKATZA URRESOLA** (Amurrio) ikastaroa bukatzen ari zarete.

Markel, zergatik arizara ikastaroa egiten?

Txikitatik parte hartu izan dut aisialdiko ekintzetan, bai Ikastolak eskaintakoetan baita Ikastolatik kanpokoetan ere. Horien oroitzen onak izan ziren ikastaroa egitera bultzatu nindutenak, gainera Ikastolako ikastaroak balio euskaldun eta hezitzaileak izatean, aukera ezin hobea iruditu zitzaidan hemen egitea kanpoko beste eskaintza batzuen aurretik.

Amaieur, zer ari zara ikastaroan ikasten?

Ikastaro honetan, haurren hezkuntza-prozesuaren hainbat alderdi aztertu ditugu. Batetik, haurren garapenean hezitzaile batek duen garrantzia eta ho-

rreren aurrean nola jokatu behar den ikasi dugu. Haurren garapena ulertzea funtsezkoa dela konturatu gara, adinaren arabera dituzten behar fisiko, emozional eta sozialak ezagutzeko.

Hasiera batean, ikastaroa aspergarria izango zela pentsatu nuen, baina gure hezitzaileak modu dinamiko eta dibertigarrian ematen ditu azalpenak jolasen bitartez.

Azkenik, monitoretza ikastaroak hezitzaile euskaldun izateko gaitasunak lantzen ditu. Ikastaroan, euskararen erabilera eta transmisioa funtsezkoak direla ikasi dugu, hizkuntza gure kulturaren eta identitatearen parte izanik.

AISIALDIKO HEZITZAILE IKASTAROA EGITEN HASI BERRI DIRENAK (BATXILERGOKO 1. MAILAN)

LAIA BIZKARGUENAGA AMONDO (Orozko) eta **MAIALEN ABEIZA MARTIN** (Okondo), ikastaroa egiten hasi berri zarete.

Zerk bultzatu zaituzte ikastaroa egitera?

Gehien bat haurtzaroen izandako esperientziak bultzatu gaituzte ikastaro honetan parte hartzera, oroitzen ikaragarriak sortzen dira, eta urteak pasa ahala, nostalgia ere sentitzen dugu.

Laia: Familiako eta inguruan ditudan kideek, bizitza osoan udalekuetako monitore izandakoek, gomendatu zidaten hezitzaile izatera, aukera paregabea zela argi utziz.

Maialen: Nik hasieratik argi neukan esperientzia berriak bizitzeko ideia ona zela, lagunekin ondo pasatzeko baita harreman berriak sortzeko.

LAUDIO ikastola
www.laudioikastola.eus

Gu Ikastola, biharko Laudio eraikitzen

IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK
2024an eta 2025an jaiotakoentzat
ZATOZ GURE IKASTOLA EZAGUTZERA
ATE IREKIAK: MAIATZAK 10
94 672 67 37
matrikula@laudioikastola.eus
www.laudioikastola.eus

Albisteak

Hezkuntzari buruzko mila bideo baino gehiago, euskaraz



Testua

Txabi Alvarado Bañares

Bilbotarra da jaiotzez Mikel Querejeta Del Olmo, baina urteak daramatza Amurrión "adoptatuta", eta urteak daramatza baita hezkuntzaren munduan murgildurik, hezitzaile moduan lehenbizi, eta Lehen Hezkuntzako zein klase partikularretako irakasle moduan gero. Bere hitzetan, urteen poderioz hasi zen sumatzen hezkuntzan "egunerokotasunean sortzen diren gabeziak", eta horiek bideratzeko sortu zuen Maisumikel Hezkuntza YouTube kanala, gaur egun euskarazko mila ikus-entzunezko baino gehiago barne biltzen dituena.

Hasieran hizkuntza eta matematikako zalantza jorratu zituen Querejetak batez ere, "sare sozialetan euskaraz asetzen ez zirenak". Funtsean, gurasoentzako doako materialak sortzea zuen helburu, haurrek klasean ikasitakoa "sakontzeko eta indartzeko" aukera izan zezaten, "guztiek ez zituztelako klase partikularrak edo laguntza jasotzeko aukera berdinarik". Horregatik, bideo guztiek dituzte gurasoentzako argibideak.

Gaie dagokienez, bideo gehienek ingurunea, euskara edo matematika dituzte ardatz, baina bestelako bideo dibertigarriagoak ere topatu daitezke kanalean, igarkizunekin, Ikusi makusi jolasarekin edota bitxikeriekin, besteak beste. Izan ere, hezkuntzan ekarpenak egiteaz gain, proiektuak badu beste helburu bat: euskarari sarean "mezezi duen presentzia" ematea.

Lehen Hezkuntzako lehen mailatan ematen ditu klaseak Amurrión finkatutako irakasleak, baina argi du bere YouTube kanaleko bideoak eskolako ume guztiei bideratuta daudela, "haien zalantza guztiak argitzeko". Bere irakasle ibilbidean "ikusitu eta sentitu" dituen "gabezia nagusietan" zentratzen da Querejeta ikus-entzunezkoetan. "Materialak ikasleek gehien izaten dituzten zalantzetan oinarrituta egiten ditut, baina gurasoen eta irakasleen eskareri ere egiten diet kasu, eta eduki erabilgarriak sortzen ditut", azaldu dio Aiaraaldea Komunikabideari. Horrez gain, eskola orduetan egindako esperientzia batzuk ere islatzen ditu bere bideoetan, eskolako negutegian grabatutakoak kasu.

Querejetaren aburuz, "arreta edo aditasuna" da Lehen Hezkuntzan dagoen erronka nagusia. Hor kokatzen du umeek gailu elektronikoekiko duten mendekotasuna, "sortzen dituen ondorio guztiekien". Horregatik, "geroz eta zailagoa" suertatzen zaio ikasleekin gai baten inguruan hitz egitea bere garaian zegoen grina berdinarekin. "Eta gogoia edo interesa ez badago, oso zaila da eskolan ikasten diren kontuak hezurramitzea", nabarmendu du.

Horren aurrean, "emozioak erdian jartzea" da Querejetarentzat "konponbiderik praktikoa eta zuzenena", eta hori egiten saiatzen da bere klaseetan ere, hainbat ariketa eta dinamika txertatuta, haurrei emozioak adierazteko tartea emanez egunean bizpahiru aldiz, zelan sentitzen diren eta zergatik galdetuz.

Haurrei doluan laguntzeko baliabideak Aiaraan hizpide



Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Maitane Perez irakasle eta idazleak idatzitako *Haizene eta oroitzapenen indarra* ipuina ardatz, haurrekin dolua lantzeko baliabideen inguruan mintzatuko dira datorren martxoaren 28an Erretes Lantenoko batzar etxean. Perezekin batera, Alazne Elejalde haur eta gazteen psikologoak parte hartuko du ere jardunaldian. Elekaldek haur eta nerabeak laguntzen ditu prozesu emozionalan, eta terapiarako tresna gisa baliatzen du ipuina.

Saioan haurtzaroan hezkuntza emozionalak duen lanketaren premia azaleratuko dute bi hizlariak. Plaza mugatuak egongo dira bertan parte hartzeko. 689765896 eta 699581178 telefonoetan eman daiteke izena.

BABESTUTAKO EDUKIA

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Metodologia berritzailea, nazioarteko ikuspegia eta tratu hurbila da gehien gustatzen zaidana”

JON LUYANDO ORTIZ DE ZARATE (Laudio) HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK (HDG) GRADUKO 1. MAILAKO IKASLEA DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

Humanitate Digital Globalak - HDG graduoko 1. mailan zaudete, zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Gradu hau Batxilergoa amaitu baino apur bat lehenago deskubritu nuen, atentzioa eman zidan, oso berritzailea eta interesgarria iruditu zitzaidalako, nahiz eta ez izan erabat argi zergatik jorratzen zuten. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitatearekin harremanetan jarri nintzen eta oso tratu hurbila eta personalizatua jaso nuen hasiera-hasieratik HDGko ordezkariaren aldetik. Sarrera-proba oso originala iruditu zitzaidan, taldean zein bakarka egin genuen lana, baina praktikoa izan zenez, oso eraman-garria izan zen. Identitatea, kultura, migrazioa... bezalako gaiak jorratu genituen, eta horrek bultzatu ninduen Gradua aukeratzera.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia

ikaragarria izan da. Zortea izan dut pertsona maitekorrekin bat egin dudalako, Unibertsitate kanpo zein Unibertsitate barruan laguntzeko prest daudenak, emozionalki adimentsuak... Oso eskertuta nago, ez delako ohikoena. Denbora gutxi daramagun arren, asko estimatzen dugu elkar, eta horrek sortarazten du giro atsegina egotea lan egiteko orduan. Gainera, orain Bilbon bizinaiz, eta nire ikuspuntutik, etxetik kanpo bizitzeak esperientzia oso goia biziarazten dizu.

Zein metodologia erabiltzen duzue?

Gradua modulu desberdinetan banatzen da, hau da, aste batzuetan zehar irakasgai bakar batean zentratzen gara, beste modulu berririk bat hasi arte. Metodologia hori gustatzen zait, lagungarria da kontzeptuak barneratzeko. Klaseak oso praktikoa direla eta batzuetan hirira ateratzen gara landutako gaure begiekin behatzera; izan ere, ikusiz gero, eragin handiagoa



du eta errealitateaz gehiago jabetzen gara.

Unibertsitatekan zer da gehien gustatzen zaidana?

Unibertsitatekan gehien gustatzen zaidana hain berritzaile den hezkuntza-eredua da, baita nazioarteko ikuspegia ere, irakasle eta ikasle batzuk nazioartekoak dira. Horretaz gain, hizkuntzak ikastea sustatzen da, hala nola euskara, ingelese... Azkenik, azpimarratu nahiko nuke talde txikitik banatuta gaudela, eta horrek tratu hurbila sortzen duela.